

Baiona
Maiatzaren 31n
2008ko edizioa

hitz *a* ditzza

Zuzen idaztea da giltza!

Koldo Amestoy

«Non liburu, han bi buru»

Antolatzaileak:



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Laguntzaileak



«Non liburu, han bi buru»

Koldo Amestoy

2

■ Iratxe eta Xirilu, eskolako lagunak ziren. Gero, neskak ikasketak segitu bazituen, mutilak bere aitaren ofizioa, altzarigintza, hautatu zuen.

Egun batez, aita-seei lan berezi bat manatu zieten. Bikote baten bigarren egoitzan zurezko liburutegi bat eraiki behar zutela. Etxe hartara joan zirenean, ikusi zituzten kartoietan nahas-mahas metatuak, mota eta neurri guzietako liburuak. Alzaria egiteko, nolabait ordenatu beharko zituztela eta !
Baina nondik hasi, eta nola egin ?

Xiriluri bere laguna gogoratu zitzaion. Eta Iratxerekin harremanetan sarturik,

«Non liburu, han bi buru»

Koldo Amestoy

3

biak hitzartu ziren. Iluntze batez, neskak bere etxean errezibitu zuen. Berantago, zurginaren arrangura entzunik, aholku bat eman zion : altzaria egiten hasi baino lehen, liburuak irakurri behar zituela, gainbegiratzuz bederen...

Ofiziale gaztea une batez mututurik gelditu zen. Gero aitortu zion, ez zekiela aski ongi irakurtzen eta. Neskak, berehala, irakasle izan zitekeela eta, eskaini zion bere laguntza. Eta gure mutilak onartu.

Ondoko astean, Iratxek ongietorria eginik, etxeko liburutegiraino eraman zuen. Eta erakutsi zion, familian aspalditik zeukatena : liburu handi bat, larruz estalia, aldi berean irakurtzen eta idazten ikasteko erabiltzen zena. Ireki zuen

«Non liburu, han bi buru»

Koldo Amestoy

4

poliki, hosto bakoitza izkinatik altxatuz, bestaldera itzuli, etzan eta laztanduz, hainbat hizki, hitz, marrazki eta marraz hornitutako barneko orrialdeak mutilari agertuz. Eta hortxe hasi zuen bere klasea.

Xiriluk neskaren ahotsa gozatu zuen, irakurketa hasi zuelarik. Eta loriatu zen, bere erien artean arkatza harturik, lehen hitza paperaren gainean moldatu zuelarik.

Segidako topaketa errito berarekin abiatu zuen Iratxek. Begitartea altxatu eta liburua zabaldu. Mutila hurbildu zitzaion eta irakurtzen hasi, eri batez segituz, hitz bakoitza perekatzen balu bezala.

«Non liburu, han bi buru»

Koldo Amestoy

5

Ondoko lerroak bere sudur puntaz segitzen zituen, musukatzen zituela iduri. Neskak hitzez eta hotsez gidatzen zuen bitartean, ahapetik ari zen dena xeheki pasatzen, deus ahantzi gabe. Eta biek irriz eta zoriontsu bukatu zuten irakurketa saioa.

Ondotik, zurgin gaztea maizago joaten zitzaion etxera. Bere irakasleak ahal zuen bezain usu, funtsean. Bazirudien, baten ikasteko goseak, eta bestearen irakasteko errabiak elkartzen zituela, aldiro.

Berantago idazketa abiatu zuten. Xiriluk arkatz gorria eskuan, besondoak liburuaren gainean finkaturik, gorputza makurturik, hizki eta mizkiak, hitz eta

«*Non liburu, han bi buru*»

Koldo Amestoy

6

mitzak, ahal bezain poliki lotzen zituen.

Burua alde batera eta bestera kulunkatuz, mihia ezpainen artetik luzatuz, paper azalean bere luma lerraraziz, intziriño batzuk botaka ari zen lanean. Laster, mutil erne eta esku-trebeak ariketa guzietarako zaletasun ederra lortu zuen. Iratxe poz-pezik zegoen eta Xirilu kontentago oraino.

Baina ikasketak tipustapast bururatu zituen gure zurginak: aitak atzeman zuelarik behin bere semea, liburutegiko altzariaren lehen zirriborroa abiatzeko ordez, zurezko ohako ttipi baten irudia marrazten ari...